



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GIPUZKOAKO PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurrekontuaren zati bat herritarren esku uzten du, herritarrek beraiek erabaki dezaten diru hori zertan erabili. Aurten, **2015ean, ia Gipuzkoa osora zabalduko** dira Partaidetzako Aurrekontuak: Bidasoaldea, Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, **Tolosaldea**, Urola Erdia, Urola Garaia eta Urola Kosta eskualdeetan egingo dira prozesu parte-hartzaileak.

Eskualde bakoitzak 2 milioi euro izango ditu datozen **lau urteotan inbertitzeko**. Eskualde horietako herritarrek erabakiko dute, prozesu parte-hartzaile baten bidez, zein proiektutan inbertituko den diru hori.

Lehendabiziko fasean, herritarren proposamenak jasotzea da helburu nagusia, eta horretarako hiru modu daude:

1. **Udaletxean eta Uztartzan** dauden esku-orrien formularioa bete dezakezu eta Udaletxean edo Uztartzan dauden **postontzian** utzi.
2. www.aurrekontuahobetzen.eus webgunearen bidez.
3. **Herri guztietan egingo diren partaidetzako tailerrera joan** zaitezke, aktiboki parte hartu nahi baduzu. Bertan, proposamenak egin eta, zure bizilagunekin batera, adostuko dituzue zuen eskualdea hobetzeko egitasmoak.

ADUNAN PARTAIDETZA TAILERRA:

Apirilak 28, asteartea. 19:00tan Kultur Aretoan

AGENDA

Apirilak 28 (Asteartea) – 19:00 Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuak (Kultur Aretoan) Badakizue... Tolosalderako 2.000.000 euro!!

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZORIONAK TOLOSALDEA ETA ZORIONAK ADUNA

Bando honekin batera Tolosaldeko Mankomunitateak egindako eskuorri bat doakizue. Bertan, eskualdean azken urteetan emandako lanketaren ondoren lortutako emaitzak agertzen dira. Irakurtzeak merezi du!!

Bestalde, Adunako hondakinen kudeaketaren emaitzak paregabeak dira! 2012an, astean, 2.800kg bideratzen genituen zabortegira. Gaur egun 300kg dira. Eta ez hori bakarrik, mankomunitateak Tolosaldeako herrien errefusa aztertu ondoren esan dezakegu eskualdeko emaitzarik hoberenak dauzkagula errefusaren "kalitatean".

%83 inguru birziklatu/konpostatzen degunez, jasotzen dugun errefusa %17 da. Hori gutxi balitz, errefus horren azterketatik ondorioztatzen da oso ondo sailkatua dagoela, hau da, %17 horren %82a errefusa da eta %18a bakarrik beste materialak (Beira, organikoa, ontziak eta papera...)

Ondorioz herrian sortzen diren hondakin guztien ($\%17 \times \%18$) = **%3**

BAKARRIK dago gaizki sailkatua!!

Esan bezala, emaitza ezin hobeak! ZORIONAK DENOI!

ADUNAKO UDALA GOIENER KOPERATIBAKO BAZKIDE

2014 urtearen bukaeran Adunako Udala Goiener kooperatibaren bazkide egin zen. Goiener, energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba da. Bazkide egiteaz gain, Adunako Udalak argiztapen kontratu guztiak Goienerrekin dauzka eta kontsumitzen dugun energia guzti hau jatorri berriztagarria dauka.

Norbanakoek ere kontratatu dezakete beraiekin energia. Informazio gehiago: <http://www.goiener.com/>

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



goiener

Energia berriztagarrien sorkuntza
eta erosle kooperatiba